

Pil bi ean

IZARTU PROGRAMA AUKERTU DA

INAZIO ELGETA KALE KANTALIAN

JON OREGIREKIN ELKARRIZKETA KIROLETAN

Soraluzeko aldizkaria

33. alea

2001eko martxoa



korrika badator!

Astelehenian arratsaldeko 7:15etan

mundu bat euskarara bildu

GOLD VIEW KRISTAL PROGRESIBOAK MULTIOPTICASEN



URRUN



HURBIL



3 hilabeteen ordaindu
errekargurik gabe

Edozein distantziatarako ondo ikusi ahal
izango duzu

19.500
pta.-tik aurrera


MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

EIBAR

Bidebarrieta, 2 EIBAR
Tel. 943200522



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Sorluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketia

belarritakora sartu

ND CD ROMa
bideo klip interaktiboa

non demontre

**Hil honetan
Non Demontre taldiaren CDa
azken lana**

Editoriala

Hil honetan, zorionezko KORRIKA izango dogu berbagai. Egitarau zabala prestatu da herrixan, KORRIKA datorrela eta, danetik dago, antzerki, kontzertu, bazkari eta beste mila gauza. Antolatzen horrenbeste lan hartu eta gero inor ez juateko igual.

Ezin jakin zergatik dan baina askok eta askok egitten dogu paso herrixan zeozer antolatzen danian. Izugarrizko bonborik edo publikidaderik ez badauka ekitaldixak, lau katu juaten dira. Arazo horrek erretzen eta desagertarazten dittu hainbat proiektu eta ilusiño. Geure herrixan eta geuretako antolatutako jaixa eta gu jua ez. Gero esaten dogu "Herri honetan ez dago ezer! Udaletxiak be ez dau ezer jartzen!" eta lasai asko gainera. Badago gauza bat egixa dana eta Udaletxiari eta danori aurpegiatu bihar jakuna, zela demontre ez dago herrixan, antzoki edo ekitaldietarako aretorik ? edo kultur etxerik ? hori bai ez daguala onartzerik. 4.300 Biztanle eta 20 talde kultural baino gehixago dittuan herri bat, Kultur Etxerik bare.

Kontuak kontu, pixkat gehixago maitte eta errespetatu bihar genduke jentiaeren ahalegina. Gure aldetik be zeozer jarri eta bestieri lagundu, gauzak ondo urten daixen. KORRIKako egitarauan daukagu horretarako aukera bikaina, guazen danok eta emon deixogun herriko taldiak antolatzen hartu daben lanari, merezi daben ordaina. Ez ahaztu, Euskeraren Aldeko Jaixa da ! Arrakasta zure skuetan dago !

Telegrapak:

Takolo Pirritx eta Porrotx aurrera!!! **STOP** Jarraitu Euskal Herriko umiak pozten,ez etsi **STOP** Felix Rodriguez de la Fuente hil zala esaten dabenak gizurra diño **STOP** Atzo Urkiazelain zeguan azarixak domatzen **STOP** Geroz eta katu eta uso gutxiau kalia **STOP** Hilda edo gosez hiltzen egongo dira **STOP** Pistinia be konpondu egin bihar dabela,bazekan premiña edarra **STOP** Aginagako sagardotegixa itxi egin dabe **STOP** Pil-Pileanekin batera joandako jendilajiak dana eran zeban **STOP** Korrika gainian dakau,prestau fraka motzak **STOP** Korrika kulturala be martxan da **STOP** Hau da hau egitarau sendua **STOP** Ekintzetan parte hartu **STOP** Agur eta hurrengo alerarte.



Argitaratzailea:
Pil Pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amaia Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal,
Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar,
Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

E-maila: Pilpilean@euskalnet.net

Publizitatea: Jon Oregi

(943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean

ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Lege-gordailua: SS-537-2.000

C.I.F.-a: G20696563

Azala: Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Soraluzeko Udaleren, eta Eusko Jaurlaritzaren
dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Kolaborazioa



Nissan Patrolian

Jon Basauri

Herri bakoitzeko berbetiak badaukaz ezaugarri batzuk inguruko herrixetako berbetetatik desberdintzen dabena. Hola, azentua kontuan hartzen badogu, Bergarakúa eta Plazentziakua diferentziak dira. Edo aditza kontuan hartzen badogu, Eibarren 'ikusidetsat' esaten dabe eta Plazentzian 'ikusidot'.

Baina aldiak herrixan bertan be badare. Ahoskatzia kontuan hartzen badogu, Plazentzia herri anarkiko samarra da, baina badago joera zelebre bat komentarixo bat merezi dabena; Plazentziatar askok tetzetian lekuan "esia" esaten dau. Lehengo egunian, esaterako, batek esan zoskun, 'Aso Karakatetik Hiru-kurusetaraino heldu Nissan Patrolian'.

Ezin da esan joera hau erderiak eragindakua danik. Egixa da jente helduan artian erderian eragin hori badaguala, batez be euskeraz gutxi egin daben jentian artian, baina beste batzuk, ahoskera hau etxian gurasuengandik jasotakua dauke. Honek gurasuok, euskaldun hutsak batzuk, ahoskera hau dauke iñungo erderaren eraginik barek.

Ganorabarekerixia dala esan leike bateronbategi. Nik ez dot uste holakorik. Bizirik daren hizkuntzak aldatu egitten dira eta soinuak nahastu. Aspaldikuak dira <s>†<z> eta <t>†<tx> moduko billakaerak. Gaur egun, <ts>, <tx>-ekin nahasten da eta <tz> <s>-kin. Zegaittik gertatzen diran nahaste honek ez dakigu, baina bai noiz: bi soinu desberdiñen artikulazio puntuak hurrian darenian. Tetzetiana eta esiana hurrian dare Plazentziako euskeran. Horregaittik entzun geinkes ez tetzeta eta ez ese diran hibrido batzuk, justu-justuan entzun leiken te suabe batekin eta esiaekin osatutakuak.

Zeiñek daki ahoskera hori ez ete zan nagusittuko herri guztian eta gero Euskal Herri osuan zabaldu. Auskalo! Ez dogu sekula jakingo. Urtiak dira transmisioño hori eten zala. Ikastola, irrati eta telebistak tetzetian ahoskeria uniformizau dabe. Gaztione artian iñork ez dogu hola egitten berba.

Ikastolakumiori batzutan barretxuak urtetzen dosku 'Aso' eta holakuak entzunda. Beste batzutan intimidau egitten gaitue. Akonplejau egitten gara ese majestuoso bat entzun eta tetzeta perfektu bat esan bihar dogunian.

Transmisioña eten danez, akordau naiz ahoskera hau hiltzera kondemata daguala, eta urte batzutan buruan (asko ondiok eh! ez zaitte estutu), iñork ez dabela 'Aso' esango. Eta euskaldunberrixekin eta hiri haundixetako ikastolakumiekin akordau naiz. Jakiña da asmau ezinda ibiltzen dirala tetzeta higuigarri horrekin. 'Atzo' ezin badabe esan, esan daixela 'Aso'. Zillegi da ziharo, eta 'Atso'-k baiño hobeto emoten dau horregaittio!

Gutunak

Haika lagun:

Azkenaldi honetan, eta komunikabideen bitartez, egoera gogorbatean aurkitzen garelako nahikoa argi dago; batez ere, ezkertiar eta abertzale den ororentzat eta hainbat atxiloketa medio, gazteentzat bereziki. Garzon epaile faxistak gobernuaren agindupean buruturiko "sugekumeak" operazioa ere, horren adibide garbia dugu; helburutzat euskal gazteria orokorrean eta abertzale kutsua duen edozer bereziki, zentzuzko argudiorik gabe kriminalizatuz eta espetxeratuz.

Ugariak dira azkenaldian Euskal Herria eta euskaldunon aurka ematen ari diren erasoak, komunikabide, polizia, epaile eta hainbat partiduk (PP/PSOE ituna) borroka lana betetzen dutelarik gizartearen aurrean (batzuek hitzez eta beste batzuek kolpez eta atxiloketez. Hemen noski, ezin alde batera utzi PNV-EA partidu sasi-euskaldunen joakera, betiko moduan eta aurrekanpainaren arestian jarrera pasibo eta argitugabea azaltzen dutelarik. Momentu hauetan ez dago erdibiderik eta bada ordua bakoitzak bere proiektua argi eta garbi azaltzeko !

Guzti honen aurrean tinko erantzun

beharra dago, Euskal Herriaren eraikuntzaren bidean pausu tinkoak emanez. Horretarako, Apirilaren 10-ean Greba Orokorrerako deialdia egiten dugu eta guztiok dugun erantzunkizunari helduz kaleratzearen beharra ikusten dugu.

EUSKAL GAZTERIA TINKO !!

AP. 10-ean DENOK KALERA !!

Soraluzeko HAIKA

OHARRAK

Urrats Dantza Taldia

Mutilen dantza taldea sortu da. Ensaio eguna, asteazkenetan 20:30etan Ezoz Bideko lokalian. Dantzan ikastia nahi daberen mutilak (15 urtetik gorakoak), aukera daukazue izena emateko. Zuen zain gare!

Zure lagun edo sendikoren bati **Pil Pilean** bidaltzea nahi badozu, ekarri zuzenbidia elkartera eta sartu milla pezeta **Pil Pileaneko** kontu korrontian. Telf. 943 75 13 04 Deitu eta emon zuzenbidia eta hileroko hileroko bialduko dotsagu etxera aldizkarixa.

HAUTESKUNDE- ZERRENDAK JENDAURREAN IKUSGAI

“Hautesle-zerrendak jendaurrean izango dira ikusgai, doakienek ikusi eta erreklamazioak egin ditzaten. Hauteskunde-Arau Orokorreari buruzko Lege Organikoaren 41 artikuluan ezarritakoaren arabera, debekatuta dago hautesle-erroldako datuei buruzko banakako informazioa ematea, eta horretaz gain, datu horiek biltzea edonolako bidea erabiliz, hala nola, eskuz, argazkiz, informatikaz edo beste modu batez. Hori eginez gero, dagozkien legezko erantzunkizunak ezarriko dira.

Hauteskunde-Batzorde Nagusiaren erabakia, 1.995eko urriaren 2koa

SORALUZeko UDALA

Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna 27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.



Pil Pilean bai, esan...

“Hiri erdia” ez, “herriaren erdialdea edo erdigunea”

Hil honetan Plaentxiar batek deitu dau, honako hau esateko:

“Eibartik etorritta, herriko sarreran dauan kartelian hau ipintzen dau, Hiri Erdia. Zer da hori! Nun dao hiria hemen? eta hiri erdixa? Plaentxia nik dakittela herrixa da eta Gila ingurua, Herrixan Erdialdia. Herri erdik bai ez dabela ulertzen Hiri Erdia hori eta ez “prexixamente”, ez dakixalako euskeraz.”

Deitu 943 75 13 04 telefonora

zure kexa edo eritzia kaleratzia nahi badozu

ARANE
Kiroldegia



Tel: 943752466



Batzoki
jatetxea

Menu
goxo goxuak



Plaza Zaharrian
Tfnoa 943 75 15 39

Zer iruditzen jatzu katu eta usueri jaten ez emoteko udalak etara daben ordenantzia?



Gabi Santa Maria
52 urte

Katuek jabia baldin badauke, eurek emon biharko lotseke jaten, ze kalia daren katu gehixenak bertan lagatakuak dira (asko txaboletakuak eta...). Usuen kasuan, egixa da, etxietako fatxada asko zikintzen dittuela eta igual jaten emotiari lagata konponduko litzake arazua.




Maria Urizar
81 urte

Katuek biharrezkuak dirala pentsatzen dot, baiña usuak berriz ez. Katuak, bi biharrian, lau hobe, baiña jana garbi emonda, hori bai. Erreka aldian arratoi mordo bat egoten da umiak botatako bokadilluengaittik... eta honek intxaurrek eta harrapautako dana jaten dabe. Hori konpontzeko katuak dauzkau, eta ingurua majo garbitzen dabe. Usueri jaten ez emotia ondo pentsatzen jata, fatxadak, lorak... zikintzen dittue eta, oso zikiñak dira...



Pepi Aranguren
50 urte

Hori gaizki dago. Lehenengo nundik datozen ikusi bihar da. Adibidez asko, etxeko katuak izaten dira, euren jabiak oporretara jua ostian kalia lagatakuak, eta hori konpondu biharko litzake aurrez. Baiña horrek be ze jana euki biharko leukie.



Gorka Tornos
16 urte

Ez jata ondo iruditzen. Katuek behintzat euren lana dauke. Gaiñera, bixak animalixak dira, bizidunak, eta jaten emoteko eskubidia dake.



Eusebio Oregi
77 urte

Horrek zikinkerixa ugari ekartzen dabe, eta holan arazua pixkat konpondu leike. Nahiz eta batzuek esan, katuak arratoiak jaten dittuela, hori ez da hola, saguak jaten dittue bakarrik, eta askotan eurekin jolasian ibili be bai. Usuak berriz narrazak dira, kotxiak... zikintzen dittue. Jaten emoten segitzekotan, kontrolauta egin biharko litzake.



Manu Caballero
10 urte

Geizki pentsatzen jata, animalixak jan egin bihar dabelako. Nahiz eta katuak eta, batzutan molestau, jaten emotia biharrezkua iruditzen jata.

UGAITZ CATALAN
EGUZKINE ALDAZABAL

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ZER BERRI?

Matrikula bat gehiago aurtengo haur hezkuntzan

Soraluzeko Haur Hezkuntzan 31 haur izan dira aurtengo matrikulatuak, lehengo urtean baino bat gehiago. Honako datu hau esanguratsutzat jo daiteke, Soraluzeko biztanle kopuruak behera egin duela kontutan hartuz.

Joan diren bost urteetako matrikulazio emaitza onenak dira 2001.-urtekoak, hain zuzen ere, lehengo bi ikastetxeen elkarteta eman zenetik. Izan ere, 1996an hogeita bost haur matrikulatu ziren soilik, eta aurtengo urterarte kopurua igo eta jeitsi egin bada ere, 31 haurrena izan da denetan



Azken urteetako matrikulazio handiena izan da aurtengo. Berri pozgarria.

handiena.

Euskarazko ereduari dagokionez, orain zortzi urte (1993), eredu ezberdinak D ereduan bateratuak izan ziren, eta honek euskararen garrantziak berebiziko

garrantzia izan du. Horretaz gain, Udaleko euskara zerbitzuak hainbat ekintza antolatzen dihardu, haurrak izandako bikoteak euren seme-alabek D ereduan ikas dezaten animatzeko.

Ehun zuhaitz gehiago Karakaten

Lehengo sapatu baten Zuhaitz Eguna ospatuz, 40 bat gaztetxo Karakatera joan ziren bertan zenbait zuhaitz landatu asmoz. Eguna, eguraldi txarrak astebete atzera arazi bazuen ere, joan egin ziren azkenean. Orduan ere eguraldi zakarra suertatu zitzairen, baina gogotsu aritu ziren lanean. Honen guztiaren helburua, batetik, esperi-

entzia berri bat izatea (lehenago inoiz zuhaitz bat landatu gabeak ugari ziren), eta bestetik, Karakateko zuhaitz kopurua ahal den neurrian handiagotzea. Izan ere, denok dakigun lez, zuhaitzak ezinbestekoak baitira ingurunerako; mendia edertu, oxigenatu... berebiziko garrantzia du te inondik ere.

Aurrerantzean, gaztetxo bakoitzak noizean

behin bere zuhaiska bisitatuko du, ia han jarraitzen duen ikusteko, nola dagoen... inork eta ezerk galarazten ez badu behintzat, urte batzuk barru erruz haziak egongo dira, Karakatera hurbildutakoengozagarri.

ARIANNE UNAMUNO
EGUZKINE ALDAZABAL
ENARA AGIRRE ETA
MARIA AZKONA

SEMAFORO BAT ETA HAINBAT KRISTAL APURTUTA



Hil hontako asteburu batean, zubi nagusiko Bergararako pasua ematen duen semaforoa, goiko parte falta zuela agertu zen. Honen konponketek iada burutuak, 60.000 pezetako kostua ekarri dute. Horrez gain, institutuko sei kristal apurtuak izan ziren, dirudienez aire konprimatuzko pistola batez. Ohiko gertakizunak ez izan arren, ez da gertatzen den lehenengo aldia; izan ere azkenaldiko asteburuetan, antzerako arazoak izan baitira.

EMAKUME LANGILEAREN EGUNEAN KONTZENTRAZIOA




Martxoaren 8a Emakume langileen eguna ospatu zen mundu osoan. Soraluze ere erreibindikazio eguna izan zen eta Plaza Barrixan enkartelada bat burutu zen. Ondoren Arrano Elkartearen afari merienda batekin bukatu zen eguna.



Eginberri
Okindegia

SANTA ANA, 4 Telefonoa: 943 75 25 43 Soraluze

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Soraluzeko energi gastua aztergai

Deba Barreneko herrietan, Soraluze barne, Debegesa enpresa ikerketa energetiko bat egiten ari da, hau da, herriek energiarekiko dauzkaten gabeziak aztertuko dituzte, eta ondoren txosten bat argitaratuko dute. Hasierako fase honetan, herriko leku publikoek jasotzen dituzten Iberdrolaren ordainagiriak biltzen ari dira, hala nola, kiroldegikoak, liburu-

tegikoak... geroagoko faseren batean ateratako ondorioak aurkeztuko dituztelarik.

Gure herrian, horrez gain, Udaletxearen eskareri jaramon eginez, argiztapena ere aztertuko du, herrian dauden ezberdintasunak kontuan hartuz.

Proiektua amaitu bezain laster, Debegesako gerente den Juan Ángel Balbásek dioenez, emaitzak jaso eta ondorioak a-

tera ostean, betiere herriaren beharren arabera, energia alternatiboak (eolikoa, eguzki-energia...) proposatuko dituzte, baliabide energetikoak, hain zuzen ere.

Esan beharra dago baita ere, lan honetan Eibarko Ingenieritzako eskola unibertsitarioak, Deba Barreneko zortzi udaletzek eta CADEMek (energia aurrezteko zentruak) ere parte hartzen dutela.

ITXAROPENAKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BERRIZTEA



Martxoaren 9an egin zen bilera batean, Jubilatutako zuzendaritza batzordeko atal bat berriztea izan zen. Jubilatutako presidente moduan, sei urtetan zehar kargu hau izan duen Jaime Aristik jarraituko du.

Gainontzeko batzordeari dago-kionez, presidente ordea, Pedro Galarraga eta idazkaria, Ignacio Pintado izango dira. Azkenik, batzorde kide moduan, Juan Izaguirre, Marcelino Pérez, Ana Mari Aristi, Josefa Zaldua eta Rosario Rascón egongo dira.

Txernobilgo haurrak hartzeko epea zabalik

Aurten ere, gobernanuz kanpoko Txernobil Elkarteak 160 haur ekarri nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegora uztaila eta abuztua bitartean.

Txernobil Elkarteak hondamendi batek eragindako gaixotasunak jokatuko haurrak laguntzeko sortu zen. Uda honetan, Txernobilgo hondamendi nuklearraren ondorioak jasan zituzten haurrak Euskal Autonomia Erkidegora ekarri nahi dituzte, beraien osasun egoera hobetzeko asmoz.

Horretarako, interesatuek 670 41 90 78 telefonora deitu dezakete




Aurten ere Txernobileko umeak etorriko dira herrira.

astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara (Belen Ugartegatik galdetu). Honi buruzko informazio gehiago nahi dutenek, honako helbidera jo dezakete (astearte eta ostiraletan, 18:30etatik 20:30etara): Bil-

boko 1go Udalbarrutia, Lehendakari Agirre hiribidea, 42. Deustu-Bilbo. Honetaz gain, jakinarazten da haurrak etxean hartzen dituzten familiek ez dutela dirurik jasozten.

LAPURRETAK ANBULATEGIAN

32 urteko gazte bat atxilotua izan zen, anbulategian errezetak lapurtzeagatik. Goizaldeko zazpiak aldera gertatu zen guztia; Soraluzeko udaltzaingoek, anbulategiko kristaletako bat apurtua zegoela ikusita, lapurreta bat gertatzen ari zela susmatu zuten. Bertara sartzean, gazte bat harrapatu zuten errezeta mordo eskuan zituela. Hau atxilotuta, Ertzaintzak atestatu poliziala burutu zuen.



ELKOARTI
VIDEOCLUB
SORALUZE



Videomatic

Gabolatz, 3-behea
Telefona: 943 75 24 87

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaizaileak
Ranurazaileak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

Eta Soraluze zer?

Soraluze ez zen Maltzagako biribilgian agertzen, oraindela gutxi arte, ezta A-8 autopistako Azitaingo irteeran ere. Hori dela eta, 1999. urte amaieran, Soraluzekeko Udalak, plenoan horrela erabakita, Europistasi eskatu zion bai N-634 errepedeko Azitain-Maltzaga zatiko, bai Eibarko Azitaingo A-8 autopistako irteerako trafiko karteletan Soraluzearen aipamena egitea. Honen arrazoia, Bergararen eta Elgoibarren izena agertu arren Soraluzekeoa ipinita ez dagoela da, nahiz eta zilegi den gure herritik pasatzea (bariantetik bada ere) Bergara aldera



Maltzagan izena jarri dute baina autopistan ez .

joan nahi bada. Eskaera horren aurrean, Europistasek dio, beraiek jarritako trafiko kartelak Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoak direla,

baina hala ere beraiekin harremanetan jarri direla. Eskaerak eskaera, oraindik ez dute inolako aldaketarik egin.

JOSÉ MANUEL PÉREZ, UDALETXEKO IDAZKARIA, JUBILATU EGIN DA



Jose Manuel Pérez berbetan, Udaletxean ikurriña jarri zeneko ekitaldian, 70. hamarkadan.

José Manuel Pérezek, zamorarra jaiotzez, bere kargua utzi du 26 urtetan zehar Udaletxekeko idazkari izan ostean. Urte hoietan guztietan, 7 bat alkateren aginpidea ezagutu ahal izan du. Beronen beharra, Udaletxearekin legediaren berri ematea izan da. Bestalde, J.M. Pérezek adierazi du, orainarte , bera lanean aritu izan den urte guztietan behintzat ,Udalak ez duela errekurtsio bat ere galdu.

Esan duenez, bera lanean hasiberria zen garaian, gure herrian ez zegoen inolako aurrerakuntzarik, ez zaharren egoitzarik, ez ikastetxerik... eta beraz, lana eskuz egin beharra zegoen. Hala ere, momenturik latzenak geroago kokatzen ditu José Manuel Pérezek, 1988. Urteko uholde izugarri haietan, hain zuzen ere. Honela, 600 milioiren beharra izan zuten kalteak konpontzeko.

Nahiz eta egindako lana gogorra izan, tristuraz uzten du bere postua eta pixka bat alaitzeko asmotan, afari bat egin zuten hilaren 9an Udaletxeke langileek eta berak.

Kontzentrazioak herrian




Hilabete honetan ere, Udalak eta Gesto por la Paz-Bakearen aldeko Koordinakundeak kontzentrazioak deitu ditu ETak eginiko azken atentatuak gaitzetsi eta hilketa gehiago barik "Bakea behar dugula" aldarrikatzeko.

Lehendabizikoa Katalunian Mosso desquadra batek bizitza galdu zuen. Bestean atentatuan, martxoaren 20an Lasarte-Oriako PSOEko zinegotzi eta alkateordea zen Froilan Elespe jauna erahil zuten. Jende asko izan zen bi kontzentrazioetan ere.

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfona: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Inazio Elgeta Kortabarria

Mendira doianak...prixarik ez!!!



Inaziok egin daben armarrixa

Berrogeita bost urte , nahiz eta berak bat gehixao esan beti, umoretsua, patxarosua, pazientzia handikua eta artistia. Domiña horrek erraz irabazi ditu bere ateraldi barregarri eta sanuekin eta alde ein baiño lehen eitten diharduan armarrixa erakutsi doskunian. Urkiazelain topau dou gure protagonista eta ondorengua kontautako benetako pelikulia.

Zelan ikusten dozu zure burua?
Persona normala naiz, kaskajo xamarra, baina normala.

Zein da zuretako menurik onena?
Bildotsa burduntzixan ensaladiakin eta gainian gatzatua.

Ordu aldaketiakin batera...
Eguna luzatu egitten da eta perretxikotan ibili ezkeru bentaja.

Txikitxako kontu bat.
Ba gu mutikotan,koxxkortuta, mendixan ibiltzen giñan Askabeitxi inguruan eta akordu politxa dakat

Ze eruan bihar dau mendira doianak ?

Prixarik ez!!lasai joan bihar da baztarrak ikusixaz

Gustuko animalixa ?
Emakumia

Entzun dogun aizerixan kontu hori, ze?

Abuztuan erdi aldera agertu zan lenengo aldiz, hasieran txakurra zalakuan genden, baina segiduan konturatu giñan azerixa zala. Makalik zeguala eta jaten emoten hasi giñan eta oin etortzen garanian etorri egitten da.

Ikutu dozue sekula, ala bakarrrik jaten emon?

Ez jaku gustatzen ikutzerik, aizerixa da, ez txakurra eta ez dogu nahi danon eskuartian ibiltzerik.

Ehiztariren batek tirua jo ezkeru?

Ba gertau leike beste batzuk be jausten dira, emoten dau inguru hau errespetatzen dabela.



BERTSUA

Elgetari sekretuak egin dotsaguz etara batzuk gordeko ziftuan ixilik badaezbapa onduan jarri garanak laster konturatu gara begiratuan daroia dakixenaren patxada, pazientiaren lagun, bizi pozaren algara, azeritxua be jada bere lagun egin bada, bihotz onekua hara derrior izan biha da, buruko ilietatik hankako bihatzetara

*Etxebarri
Doinua: Habanera*

Soraluzeko Felix Rodriguez de la Fuente berria

Zuri pasau jatzu holakorik burutik..

Ezta pentzau be, hori traiziño bat izengo litzake guk kariño haundixa

“Ez jaku gustatzen aizerixa ikutzerik”

hartu dotsagu.

Emon aholku pare bat oingo gazterixiari...

Zintzo ibili drogak alde batera lagata eta ondo disfrutau bizimodua iñori miñik eitteke eta zorrik lagatzeke.

GURURU
GORKA S.

ITUR iturgintza


Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 639 17 96 96
Sakeleko tlfonoa: 656 30 85 24

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

IZARTU

2.148 miloiko egitasmoa

Soraluzeren biziberritzerako

Hil honetan bertan eman du aurkeztera Udalak, Izartu programa. 2.148 Milloiko aurrekontua osatzen duten 12 ekintza zehatzek osatzen dute proiektua eta dagoeneko, Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago.

Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez, E.A.E. ko eremurik deprimituen eta baztertuenei begira ateratako berreskuratzeko eta eraberritze aukera ematen zuen egitasmoari, IZARTU programari, 2.148 milloiko aurrekontua duen proiektua aurkeztu dio Soraluzeko Udalak. Alkatea eta Debegesako bi teknikari izan dira proiektuaren nondik norakoak zehaztu dituztenak eta euren esanetan "proiektuak, Soraluzeren oinarriko infrastrukturek eraberritu eta sendotzea du helburu nagusi".

Infrastruktura arazoak lehentasun

Izartu proiektua osatzerako orduan, egileek, Soraluzek dituen arazoak balorazio bat egin behar izan dute. Juan Angel Balbás Debegesako gerentearen esanetan "Soraluzeren egoeraren behin behineko balorazio baten ostean, lehentasunak markatu eta aukeraketa bat egin behar izan da eta ikusi dugu, zirkulazio infrastrukturek; bialidade, barne komunikazio, herrirako sarrera-irteeren arazoak alegia, direla lehentasunez konpondu beharreko arazoak eta horri erantzun nahi zaio proiektu honekin". Honekin batera, "eraberritze

urbanoari eta ekonomia sailari dagozkien arazoak ere identifikatu dira eta hauei aurre egiteko ekintzak ere barneratu dira proiektuan. Agian era xumeago batean baina langabeziaren arazoari eta ibaiaren egoerari aurre egiteko ekimen batzuk ere prestatu dira". Proiektuaren helburu orokorra "Soraluze bizitzeko herri erakargarri bihurtu eta herria bizilagun barik ez gelditzeko bideak jartzea da".

Guztira 12 Ekimen proposatu dira

Izartu proiektua 12 ekimenez osatzen

dute guztira eta bakoitza aurrekontu, finantziario era eta helburu zehatz batzuekin proposatu da:

1. Irisbide berria Erregetxera: Estaziotik Ezozi Bidera pasabidea egin eta Eibar alderako Zeleta, Estazio, Txurruka eta San Andres auzoetako trafikoa, hortik bideratu, herriaren erdialdetik beharrean.

2. Santa Anara irisbidea hobetu, Deba ibaiaren gainaldeko zubia: Santa Anako eremun Industrialera herriaren erdialdetik pasatu gabe iristeko errezatasuna jarri zubi bat eginaz Olako Atxuritik.

3. Hegoaldeko lotunea eta GI-3651 errepediarekin elkartzen den bidea: Ezinezkoa da Bergara aldetik Soraluzetik irtenda, bariantean Eibar aldera hartzea, aukera horrez gain, San Andres eta Txurruka auzoetara doan bidearekin lotura egingo da.

4. Hondamenak botatzeko egitaraua: Zine zaharra bota eta parke bat egitea aurrirakusten da eta Errekalden etxeak eraberritzea ere bai.

5. Eremu publikoak urbanizatzeo egitaraua: Ezozi Bidean Arrizabaletako parkea egitea, Loralde ingurua eta Atxurin Hospital zaharraren ingurua urbanizatzeaz gain, Erresidentziarako



Alberto Sudupe IZARTU programaren aurkezpen ekitaldian



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

eta Gabolatz-Loralderako igogailu bana jartzea ere proposatzen da.

6. Hiria apaintzeko egitasmoa: Laguntza ekonomikoak eskeintzea euren etxeetan, fatxadaren berritze lanak egin nahi dituzten jabeendako, señalizazio eta argiztatze lanak amaitu eta Deba Ibaiaren inguruak eraberritzea da.

7. Ekipamenduak birgaitu: Ekipamendu publikoak sen-



Helburua, Soraluze bizitzeko herri erakargarri bihurtu eta herria bizilagun barik ez gelditzeko bitartekoak jartzea da

dotzea. Hezkuntza eta kirol alorrekoak, Polikiroldegia berriztu, frontoiko ikastola zaharra bota eta Plaentxia Ikastxea eraberritu.

8. Telelanerako zentroa sortu: Batez ere emakumeen langabeziari begiratuta, heritik edo etxetik lana egiteko aukera ematen duen lan mota hau erakartzen saiatzeko Telelan Zentroa sortu.

9. Ibaiertzak berreskuratzeko en-

presa: Deba Ibaiaren bazterrek garbitu eta berreskuratzen lan egingo duen enpresa bat sortzea.

10. Carmelo Mendizabal Industria-aldea: Carmelo Mendizabal industria-aldean 9.000m² inguruko eremu industriala prestatu.

11. Publizitate ekintzak: Herritarrei proiektua ezagutzeko publizitatea.

12. Herrialdeak biziberritzeko

erabateko jardunen gestioa: Proiektuaren gestioa egingo duten profesionalen kontratazioa

Proiektuaren onespeneren zai, finantziazioaren %75a jokoan

Proiektua Eusko Jaurlaritzaren esku jarri eta gero, 6 hilabete inguru itxaron beharko da erantzuna baiezkoa den ala ez jakin arte. Baiezkoa zihurtatuta ez badago ere, Soraluzek, Izartu programaren dekretuan aipatzen diren eta eskaria egiten duen Udalerriak bete behar 10 ezaugarrietatik 9 betetzen dituela kontuan hartuta, lagabezi tasa altua, bizilagun kopuruaren beheranzko joera, inguruaren degradazioa, txirotasun arazoa, bazterketa soziala moduko arazoak hain zuzen, itxaropentsu egoteko arrazoiak badirela uste dute proiektuaren egileek. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Euskadi 2.003 Programak ere, Soraluze inbertsio eta eraberritze behar handia duen Udalerriat izendatzen du Lurralde Antolaketarako Sailaren beste txosten batek bezala eta hortaz badaude argudio gehiago proiektua onartua izango dela pentsatzeko. Eusko jaurlaritzak Izartu proiektua onartuko balu, 1.500 milioi, proiektuaren finantziazio osoaren %75 hartuko luke bere gain eta 5 urteren buruan lanak amaituta izatea aurrikusiko litzateke.

EGOITZ UNAMUNO

HAMABI EKIMENEN AURREKONTUA

EKIMENAREN IZENDAPENA	IZARTU	UDALA eta	GUZTIRA
	Eusko Jaurlaritza	Besteko FONDOAK	
1. Irisbide berria Erregetxera.	192,75	64,5	257
2. Santa Anara irisbidea.	171,3	57,1	228,4
3. Hegoaldeko lotunea.	630,75	210,25	841
4. Zaharkituak botatzeko egitasmoa	75,75	25,25	101
5. Eremu publikoak urbanizatzeko.	120	40	160
6. Hiria apaintzeko egitasmoa.	75	25	100
7. Ekipamenduak birgaitu.	135,75	45,25	181
8. Telelanerako zentroa sortu	11,25	3,75	15
9. Ibaiertzak berreskuratzeko enpresa	27,4	9,1	36,5
10. Carmelo Mendizabal Industriañdea	59,25	124,03	158
11. Publizitate ekintzak.	7,5	2,5	10
12. Hirialdeak biziberritzeko jardunen gestioa.	45	15	60
AURREKONTUA GUZTIRA (Miliotan)	1.552	596	2.148

(BEZ sartu gabe)



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Kontulan

Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkartek Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Txirrindularitza

Jon Oregi

Tegui Txirrindularitza Taldean korritzen du Ulma taldea laga eta gero.

Soraluzekeo txirrindularitzaren promesa hau duela 6 bat urte hasi zen bizikleta gainean konpetitzen, urte hauetan zehar Jonek bizikleta gainean momentu onak eta txarrak izan ditu baina oso gustora dago orain arte lortu dituen emaitzekin:

Kadeteetan: Garaipen bat

Jubeniletan: 4 garaipen

Afizionatu mailan: Gervais-ean bi hirugarren postu.

Nolatan hasi zinan txirrindularitzan?

Betidanik gustatu izan jata bizikletan ibiltzia. Hasiera batian mendiko bizikletarikin ibiltzen nintzan nere anaiekin batera baina gero aitta konbenzitzia lortu giñuanian, kadete mailan konpetitzen hasi ginan anaia eta bixok.

Zelakua izan zan zure lehenengo esperientzia konpetiziño batian?

Karrera hasieran oso urduri neguala akordatzen naiz, bildurra neukan horrenbeste mutiko ikusitta bizikleta gainean, baina bildurra pasau jatanian, proba 13. Postuan bukatzia lortu neban.

Orain afizionatu mailan Ulma-Cegasa taldian 2 urte egin eta gero zergaitik fitxatu dozu Tegui taldean?

Ulma-Cegasako ekipo tekniko guztiak taldea laga egin zeban eta orduan nik pentsau neban neretzat aurrera pausu bat izango zala potentzial haundixagoko talde batekin fitxatzia, hau da Tegui nafar taldearekin.

Zer eskatzen dotsazu denboraldixari?



“Autogidariari eskatuko notsen burua izateko gu bizikletan goiaz eta beraiek berriz autoan”

Suerte txarrik ez edukitzia, lesiñorik ez edukitzia eta konpetiziñuetan kontinuitate pixkat izatia. Hau dana eduki ezkerro balio dotena erakusten saiatuko naiz eta ia noraino heltzen naizen (igual tourrera).

Denboraldixa hasitta dago, zer moduz moldatu zara parte hartu dozun txapelketetan?

Denboraldi hasiera danez, ez nago

nere punturik onenian eta karrera honek sasoiari jartzeko aprobetxatzen ditud. Lan espezifikoa hau erabilitta, espero dot maiatz ekain alderako nere sasoirik onenian egotia .

Aurten parte hartu doten txapelketen izenak honek dira:

- Malagako bira
- Guerrita trofeoa (Murtzia)
- Lasarteko klasika
- Oteiza eta Gorla
- Villatuerta (Nafarroan)

Errepedietan izan al dozu inolako arazorik? Zer eskatzen dotsazu autogidariari?

Bi istripu izan ditsut autuekin eta jentia ez da konturatzen guk egunero gure bizitza arriskuan jartzen dogula. Kirolari ospetsu bati zerbait gertatzen jakonian, orduan konturatzen da jentia gutaz, bestela ez da akordatzen.

Nik autogidariari eskatuko notseke, burua izateko, gu bizikletan goiaz eta berak berriz auto barruan.

Herriko txirrindularitza zela ikusten dozu?

Herrixan oin momentuan Zigor eta ni bakarrik gare konpetiziñuan eta nik herriko mutil gaztiak animatzen ditud kirol hau egittera oso kirol polita dalako. Batenbat animatzen bada ni prest nago danian laguntzeko, taldea aurkittu, materixala...

Txoritxo batek esan dosku Ion-ek datorren apirilaren 2 eta 3an bizikletan goatzia nahi dabela eta hortarako balio daben ala ez jakitxia nahi dabela. Ia suerte ona daukan eta hemendik gutxira goi mailako talde batian ikusten dogun. Animo Ion!!!

Lonbide
taberna

*Pintxo ezberdinak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Mendizabal

Okindegia

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Futbola

Infantilak eskolarteko txapeldun

Nagusiak ezer gutxi irabazten dutela eta hemen ditugu gure txikitxoak Eibarko eskolarteko txapelketaren irabazle. Infantil mailako neska mutiko haurrak 8 eta 1eko emaitzarekin irabazitako futbol partiduan.

Emaitzak oso ondo erakusten du partiduaren martxa. Jokua benetan ikusgarria izanda baloia alde batetik bestera mugitu zuten. Aurkari zen Mogel Isasi taldea, baloia ate barrutik ateratzen eduki zuen partidu guztian zehar eta futboleant ez zuten oso ondo jokatu.

Mutikoen poza handia izan zen partidu osoan zehar, baina jairik haundiena partuzren amaieran iritsi zen.

Garaiko altxatzeko orduan "txapeldunak, txapeldunak" kantua entzun zen. Une hortan, argazkian agertzen den moduan, Xuban Catalan,



Infantilak entrenatzailearekin garaipena ospatzen

beraien entrenatzailea, besoetan hartu eta pare bat aldiz airera jaurti zuten.

Xubanen hitzetan: "Oso gogor entrenatu dute eta oso merezia dute txapelketa irabaztea."

Jokalariak hauek izan ziren: Ander heriz, Julen Mendikute, Jorge Gomez,

Gorka Alvarez, Ander de Luis, Eneko Berraondo, Argoitz Ariznabarreta, Markel Arizaga, Jon Oñederra, Moushine Bougrin, Mikel Irisarri, Jose Luis Nieto, Aitor Atxotegi, Jon lamariano, Lide Ugarte eta Amaia Calvo.

Judoa

Cristina Hernandez bigarren postuan, Nazioarteko Judo Txapelketan

Herriko neska gazte honek, berri pozgarri bat ekarri digu berriz ere herrira. Bigarren postuan geratu zen Deban jokaturako Nazioarteko Ema kumezkoen txapelketa honetan. Cristinak, Gipuzkoa ordezkatu zuen eta aurkari bezela honako hauek izan zituen: Kantabria, Errioxa, Nafarroa, Madril, Portugal, Andorra, Frantzia, Belgika eta Italiako kirolariak.



Cristina Hernandez

Pilota

Azken emaitzak

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Kadeteak

- Zuhaitz Rodriguez – ErleiTxurruka 22-15
- Zuhaitz Rodriguez – ErleiTxurruka 22-12
- Zuhaitz Rodriguez – ErleiTxurruka 22- 6

Gazteak

- Iker Azagirre – Asier Fernandez 15-22
- Iker Azagirre – Asier Fernandez 22-12
- Asier Fernandez – Iñaki Jauregi 22-10
- Iker Azagirre – Iñaki Jauregi 22-5

INTXAURRONDO

- Erlei Txurruka – Agirre 22 – 12
- Urrestarazu – Zabalo (Altsasu)

ZARAMAGA

Gazteak

- Txurruka – Jauregi 22-15
- Azagirre – Irureta (Beasain) 22-5


IKASTOLEN ARTEKO DEBA BARRENEKO TXAPELKETA, KIROLA EUSKARAZ

Txapeldunak: Alana Berraondo, Enara Oñederra, Beñat Catalàn eta Iker Garcia. **Zorionak!!!**

Txapelketa hau bikoteak izan beharrean hirukoteak jokatzen dute, lau neska mutiko hauek txandaka hirukoteak osatuz jokatu dutelarik.

XUBAN CATALAN
GORKA SALABERRIA TXAKARRA

Bolia taberna



Etxaburueta
kalian

Soraluze

Telefona:
943 74 11 04



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Musika eskeintza Korrika egitarauaren barruan

Martxuan 31an Gaztetxian kontzertu sorpresa eta apirilaren 1ian Asier Serrano Gaztelupian

Sapatuko jai haundixari amaieria emoteko, talde fenomenon baten kontzertua izango da Gaztetxian, 22:30ak aldi. Ez doskue esan ze talde dan, baina Kontzertu luzia eta ikusgarria aurrikusten dala esan doskue. Gaztetxian kontzertu sorpresa dago orduan. Preparatu Soraluze!

Apirilaren 1ian Asier Serrano abeslarixa izango da Gaztelupian.

Gaztelupek antolatuta,



Petti abeslarixak disko berrixa atera dau

Gaztelupeko Hotsak disketxearekin

abeslari eta poeta Eibartarrak kontzertu bikain bat emango dau eta ziu giro politta sortuko dala, Gaztelupen ohitura dan moduan.

Non Demontre taldiaren eta Pettiren disko berriak kalia, Gaztelupeko Hotsaken eskutik

Non Demontre Eloxarriaren taldiak, bere lehenengo disko kaleratu berri du Gaztelupeko Hotsak disketxearekin. Martxoaren 14an Bilboko Kafe Antzokian egindako aurkezpenian ezagutarazi zittuzten, talde Bizkaitarraren CD Rom interaktibua eta musika bisuala biltzen dituan lana. Lan berezi honek musikarekin gozatzeko eta aldi berian musikaren bide ezberdinak aukeratzu, jolas egiteko aukera



Non Demontre taldiaren CD interaktiboaren azala

paregabea eskeintzen du. Pettiren diskoak berriaz, gitarrajole fin eta Bluesman dizdiratsu bategen, folk basati bat estilotzat hartuta, dakarren musika jasotzen du. Blue zale eta musika sentituaren zaliendako disko da.

Apirilaren 4an Musika Eskolien kontzertua Elizan



Herriko Musika Eskolako ikasliak, Udaberriko kontzertua eskeiniko dabe elizan, arratsaldeko 19:30etan. Honako egitarau erakargarria preparatu dabe egun horretarako:

Klarinetiak: "9. Sinfonia" – Beethoven
Tronboiak: "A toute coulisse" – Dubois
Pianuak: "Moon River" – H. Mancini
Saxuak: "Martxa Clasica" – Anonimua
Trikitixak: "Guardasol" – Tapia eta Leturia

Txistuak: "Bi soinu hungariar" – B. Bartok

Biolinak: Thee Pieces:

1- "Trumpert Minuel" – P. Prellleur

2- "Air" – Handel

3- "March" – P. Prellleur

Soinuak: "El rey leon" – Elton John.

Flautak: "Danse des mirlintons" – Tschaiikois

Kitarrak: "Iluntzean" – Maixa eta Itziar

Bandiak: "Danserye" – Tylman Susato

Abesbatzak:

"Wenn ich ein vöglein wär" – R. Schuman


"Behin batian Loiolan" – Am - J.C. Frantsesena

"Soon I will be done" – Am - E. Daniel



SAN ANDRES
Iturgintza
Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46




Pub
Intxixu

Etxaburueta, 8 - behea
Tfnoa 943 75 20 36

KORRIKA

badator



Sapatu honetan KORRIKA JAIXA: Skuadrilen Arteko Olinpiadak, Herri Bazkarixa, Heriz Magua.....

Iritsi da KORRIKAren 12. Ediziñua eta Soraluze guztiz murgilduta dago herriko taldien artian prestatu dan egitarau zabalaren barruan. Nahiz eta ekitaldixak egun askotan egin, sapatua izango da egunik garrantzitsu eta haundixena. Kuadrilen Arteko Olinpiadak, Bertso Antzerkixa, Bertso Triki Poteua, Herri Bazkarixa, Orixoko Bertsolarixak, Heriz Magua, Buruhaundixak, Dantza Taldian Saiua eta eguna borobiltzeko Gaztetxian egingo dan kontzertua.

Domekan berriz Abesbatzaren kontzertua eguardixan, atsaldian Mus Truk eta Tute txapelketia (izena emoteko domekan bertan plazan) eta gabian Txuma Murugarren Gaztelupian. Arrakastia herritarren partehartzian dago, hortaz, zeuk daukazu azken hitza euskalzale, animatu eta besterik ez bada etorri gozatu begira !

Astelehenian KORRIKA 19:15etan Soraluzean

Astelehenian pasauko da KORRIKA Soraluzetik, 19:15 aldian ailegauko da Maltzara eta handik Osintxura bitartian, Soraluzeko taldiak eukiko dabe testigua

eruateko arduria. Animatu eta egin antxitxika KORRIKAren alde. Datorren domekan Baionara autobus bi.

Gasteizen hasi eta bi astetan zihar Euskal Herri darian pasau eta gero, Baionan izango dau amaieria aurtengo KORRIKAK. Egun guztiko jaixa dago antolatuta Baionan egun horretarako eta Soraluzetik 2 autobus jarriko dira juatia nahi daben danak aukeria izan deixen. 500pezeta bakarrik izango da bidaiaren prezia eta egun bikain bat pasatzeko aukeria izango da bertan (19:00etan buelta). Izena emoteko, tabernetan jarriko dira orrixak.

EGOITZ UNAMUNO

Bai Euskarari: Hitzarmena Pil Pilean eta Udalaren artian

Hil honen 16an Udalak eta Pil Pileanek Bai Euskarari planaren inguruko hitzarmena sinatu zeben. Hitzarmenak, herrixan Bai Euskarari plan estrategikua aurrera eruateko biharrezko diran teknika-rikak kontratatze-ko aukera aitortzen dotsa Pil Pileani eta Udalak hartzen dau bere gain kostu guztixaren finantziazi-ñua. Dagoeneko auke- ratu dira bi teknika-rikak eta Aitor Madrid eta Loliola Madera dira bera- uek.

Teknika-rikak aukeratu ostian, plan estrategikua- ren jarraipena egingo



daben Jarraipen Batzordia osatzia zan hurrengo pausua eta halaxe egin da. Hil honen 26an elkartu ziran Udaletxian batzorde honetako partaidiak; Alberto Sudupe (alkatia) eta Ezosi Larrañaga (euskara batzordeburu ohia) Udaleko ordezkari moduan, Unai Larreategi (Euskal Herrian Euskaraz) eta Egoitz

Unamuno (Pil Pilean) Euskalgintzako ordezkari moduan, Olatz Oregi (Abesbatza) gizarte eragilien ordezkari moduan eta Mikel Leunda (Udaleko Euskara Teknika-rixa) Zuzendaria lanetan, Euskadiko Kutxako Zuzendaria izan zen azaldu ezin izan zuen kide bakarra.

Pello Zabalaren hitzaldi interesgarria



Pello Zabala Arantzazuko fraile eta eguraldi gizon ezagunak, historian zehar eguraldiaren iragarpenen izan diren aurrerapenen inguruan kokatu zuen hitzaldia. Peioren esanetan, azken mende honen azken 4-5 hamarkadetan egin da aurrerapenik handiena eta ordurartekoa, zela edo hala egindako iragarpenek osatzen dutela adierazi zuen. Garapen handi honen arrazoirik garrantzitsuena, komunikazio alorrean izandako aurrerapena dela azpimarratu zuen.

Vidal frutadenda

Zure frutadenda



Etxaburueta 2
Tfnoa 943 75 20 55
20590 Soraluze



Iñaki Iñarra

Harategi eta Urdategia

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Otsailaren 26an egindako ohiko saioan

Euskera Batzorde Informatzailearen proposamenez, 50.000 pezeta ordaintzea Mikel Leunda Senperena Jn.ri “Plan, Plin, Plan” egitasmoaren gastuei aurre egiteko.

Hiri eta Landa ingurugunean, telefono mugikorren antenak jartzeko hiri-gintza alorreko araudi orokorrari buruzko informazioa eskatuz, Miguel Martinez Jn.k “Xfera Moviles S.A” ren izenean

izenpetutako idazkia “ Ekain ” Lege Aholkularitzak gai honetaz egin eta Udalak bere egiten duen txostenaren fotokopia bidaltzea erabakitzen delarik.

Martoxaren egindako 12an egindako ohiko saioan

Hirigintza, Lan eta Zerbitzu Batzorde Informatzailearen proposamenez:

1. Atxuriko oinezkoen zubia txukuntzeko “Pinturas José Pérez” en aurrekontua onartzea , 196,400 pezeta zenbatekoz, gehi BEZ
2. Soraluze udalerri Deba ibaiaren profilen planoak egiteko “Mugarri, S.L.”ren aurrekontua onartzea 225,000 pezeta zenbatekoz gehi BEZ.
3. Santa Ana kalean argi berriak jartzeko “Electricidad Lau C.B”ren aurrekontua onartzea 615,194 pezeta zenbatekoz

gehi BEZ

4. Udal biltegi berriaren instalazio elektrikoa egiteko “Electricidad Lau C.B”ren aurrekontua onartzea 435,464 pezeta zenbatekoz gehi BEZ

5. San Andres auzoko aire bidezko argindar-linea aldatu eta “Industrias Leta”ko argindar-hartune zaharra kendu edota desmuntatzeko “Iberdrola” ren aurrekontua onartzea 406,326 pezeta zenbatekoz, BEZ barne.

Euskera Batzorde Informatzailearen proposamenez

1. 10,000 pezeta ordaintzea Nerea Uzin, Ohiana Garitano, Ainhitze Etxeberria, Enara Gallastegi eta Aiora Elizburu-ri “Plan, Plin, Plan”en begirale aritzeagatik.
2. Soraluze B.I.ri 30,000 pezeta ordaintzea, Asisko Urmenetaren hitzaldiaren kostuari aurre egiteko .
3. AEKri 100,000 pezeta ordaintzea, “Korrika 12”rako dirulaguntza gisa. Gizarte Ongizate Sailerako inprimagailua erosteko “Electronica Cruz” en 26,831 pezeta onartzea.

Martxoaren 19an egindako ohiko saioan

Redouan Amiyar Jn.k aurkeztutako instantzia, Santa Ana Kaleko 13-behea zenbakian arrain salmentarako denda berriz irekitzeko udal baimena eskatuz;

eskatutako onartzea erabakitzen da. “Korrika Batzordea”ren izenean eta ordez, Iñaki Alberdi sintatutako idatzia, Korrika 12.ren edizioa dela eta, udalerri

honetan antolatuta dituzten ekitaldiak burutu ahal izateko, Udalaren laguntza eskatuz. Eskatutako guztia ontzat ematea erabakitzen da.

Martxoaren 19an egindako ez ohiko saioan

Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du, Francisco Javier Ibarrodo Martinez –Iturralde Jn.k idatzitako “Arane Udal kiroldegiaren zaharberritze Proiektua” ren fasea onartzea, 44.844.726 pezeta kontratu bidezko burutze aurrekontuaz.

Talde eratzailer bat sortuko da, talde politiko bakoitzeko partaide batez osatuz. Lehenengo fasean piszina itxiko da eta ur bereko dutxak kenduko dira.

Gauzatze epea lau hilabetekoa izango da eta premiazotasun izaeraz tramitatuko da. EDU POMBAR



Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo
goxo goxuak !!




Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Ventanas
Olarri

- * Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- * Terraza estaldurak, Balkoiak
- * Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila




BULARREKO minbizia

Bizi garen gizartean sarri emoten dan gaixotasuna dou bularreko kantzerra eta hori hola dala probatzeko ez dao azken urtietako datuak ikustia besterik.

1 994. urtian 100.000 biztanleko 88,5 ek bularreko kantzerra zeuken. Gaixotasun hau gainera andarzkuen artian heriotza eraitxen dabena da, 1997. urtian 100.000 biztanleko 27,34 hil zirelarik. erk eragiten duen ez dakiunez oso importantia da bizkor topatzia edo konturatzia hau daukaura. Gaixotasun hau emoteko arrazoiak ez ezagutu arren badakiu hau agertzeko arriskutsuak dian faktore batzuk badarela. Faktore hauek gaixotasuna eukitzeko posibilidadiak haunditzen ditzue baina ez dia eragile zuzenak, hau da, ez dabe berak gaixotasuna sortzen.

Autoexplorazinua da prebentziorik honena

Faktorerik garrantzitsuena andrazkua izatia da gizonezkuetan ez dalako ixa emoten. Gero edade kontuan sartu bihar gara betiko moduan, zenbat eta nausixao orduan da aukera gehixao. Beste faktoretako bat genetikua edo familiarra dala esan leike, honenbestez familixan hau euki dabenen bat baldin badao, ba posibilitatiak igoko dia. Umeak 30 urte baino beranduago euki, umerik izan ez dabena eta umieri bularrik emon ez dotsunak aukera gehixao ditzue, reglia edade gitxikin hasi edo menopausia edade nausixakin



Mamografia oso bide eraginkorra da minbizi mota honen diagnostiko zuzena egiteko

Bularreko minbizia andrazkuetan heriotz gehixen sortzen ditsuan gaixotasuna dugu

hasi jakuenekin batera. Emoten dau janari aldetik be grasa kontsumuak... eragina badaukala.

Emoten ditsuan sintomarik normalenak koskortsoa, minak eta pezoitik likidua botatzia izabgo zian baina ez dao zertan alperrik arduratu normala ez dan sentsazino bat dauan bakoitzian bularretan. Aipatzekua da emakumezko danak autoexploraketa ein biharko leukiela, reglia euki ostian edo menopausia euki eskero edo pasauta izan eskero hilero hilero. 50 urtetik aurrera euskal komunitate autonomoko programak noizian behin andrazkueri inbitazinua emoten dabena bakoitzian eixia komenigarria da.

Bestalde sail honetatik esatia esan biharrian gare oso importantia dala halako gaixotasuna daukan pertsona

batek bere familixa, lagun... en apoilua izatia eta baztertuta ez sentitzia. Honenbestez badakizue zer ein! Holako gaixuetan oso importantia da psikologikamente zela daren ikustia eta animatzia.

Informazio gehixau nahi izan eskero: <http://www.noah-health.org/>

OIER OREGI



ALAITZ

Jatetxea

Ezoziko bidea, 16
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 11 90



Maider Lopez

Podologo

65. kolejiatu zenbakia

Arragueta kalea,
2 bis C behea
20600 EIBAR
Tlfnoa: 943 82 04 88

HORMATZULOTIK BEGIRA

Soraluzeko txorixak



Negu-txirta

Izen zientifikoa *ANTHUS PRATENSIS*
Euskarazko beste diturak *Paseko txitxita,*
neguko txitxita
Luzeera 13 - 15 zm
Zabalera 25 zm
Pisua 17 - 21 gr

Moko fin luzekoa, hanka gorriak, gorputz marroi eta zuriduna. Gurean neguan bakarrik azaltzen da. Eta kumeak Frantziatik gora egiten ditu. Neguko larre, otatza, txilardietan ikusteko aukera izango dugu. Zelai ingurueta hara eta hona maiz ibiltzen da, hazi, zizare eta beste makina bat intsektu desberdin jaten. Zingira ertzetan ere bizitzea gustokoa du. Txitxiaren kantua lurretik edo adar artetik irtetzen dela entzun ahalko da beti.

AITOR MADRID
"Eibarko Hegaziak" Asier Aranberri

Sukaldaritza

"Brazo jitano"



Armendi jatetxera hurbildu gara, eta bertan Xabi aurkittu dogu bere semiakin eta errezeta goxo-goxo hau eman dosku.

Osagaiak:

150 gr Azukrea
125 gr Hirina
5 arrautza

"Brazo jitano"aren barrukoa

Krema pastelera
Albarikokezko mermelada
Moka
Frambuesazko mermelada eta nata nahastua

Adornoa

Azukre birrindua
Nata montatua eta intxaur batzuk

Zela egin:

Lehenengozarraultzearen gorringoa eta zuringoa banatu bi katilutara.

Arraultzearen gorringoa ondo eragin eta hau igota dagonian azukria gehitu, eragiten jarraituz, gero zuringua egoste-puntuan ipini, eta orduan zuringua eta gorringua batu egingo dittugu irina gehituta eta nahastu egingo dittugu.

Labeko bandeja batian papel fin bat ipiniko dogu eta hona len egin dogun pastia botata, labian sartuko dogu 175° tara. Hau eginda dagonian, hozten laga, barruan nahi douna sartu eta biribildu.

UGAITZ CATALAN
EGUZKINE ALDAZABAL

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Erretratua



Ikastolan 1.973. urtian

Argazki hau 1.973. urtean atatera zeben ikastolako andereñuak. Eta normala dan moduan, bertan ikusi leikezen aingerutxuak, klasiak hasteko irrikitan zeren.

Honek dira euren izenak:
Goixan: Xabier Alberdi, Ainhoa Alberdi, Arantzazu Akizu, Iratxe Benito, Aitor Fernandez, Mikel Arrillaga, Kristina Fulgencio, Esther

Arribas, Isabel Gil, Jokin Oregi, Esther Garitano, Beronika Galarraga, Arantxi Peñalba eta Nere Orbea.

Erdixan ezkerretik hasita: Susana, Mireia Gabilondo, Iñigo Bolunburu, Joxi Txurruka, Xabier Retolaza, Asun Aranda, Iñaki Oregi, Belen Villabuena, Mireia, Lete, Nerea Areitiaurtena, Ane Ansola eta Roberto Mendizabal.

Makurtuta ezkerretik eskumara: Oskar Gallastegi, Asier Elizburu, Maria Pilar Arzuaga, Pedro Jose Castellon, Xabi Alberdi.


IRATXE BENITOK lagatako argazkixa

Kontu zaharrak

Ba doa Pil-Pilean ere denboran aurrera eta hasi zen hunetik hona zenbait aldaketa nabarmentzen dira. Bertan lan egiten dugunon artean aldaketa hauek positibotzat jotzen ditugu eta espero dugu zuen gustokoak ere izango direla. Orain irakurtzen hari zaren txoko berri hontan herri hontako historia apur bat ikasiko dugu, (Ez beldurtu ikasleak, apur bat besterik ez baita izango ale bakoitzean) nire ustetan denok bait gaude horren faltan.

Aspikaldeko argazkiari erreparatu ezker oso nabarmen egiten dira herri honek denboran zehar izan dituen aldaketak, gehien nabarmentzen dena bariantea oraindik egiteke zegoela izan daiteke eta bertan aurkitzen den frontoiaren falta ere somatzen da, nahiz eta oraindik pareta bat ikus daitekeen. Polikiroldegia ere ez da aurkitzen eta horren tokian lantoki handi bat ikus dezakegu, honen aurrean Erregetxea ere ikus daiteke orain beti ere kotxez josita ikusten delarik.

Ikus dezakezunez badago zer erakutsi eta ikasi txoko honi esker, denon gustokoa izango delakoan eta Ramiro Larrañagari



bere liburuko argazki eta edukiak erabiltzea eskertuaz hurrengo alerarte agurtu egingo naiz.

TXAKARRA

JOSETXO *Ardangela*

PINTXO ETA OTARTEKOETAN
ESPEZIALITATEA.

Atxuri,9 SORALUZE Tlf: 943751571

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

KALITATEA

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Ibilixan ibilixan bertso eskolia

KORRIKA 12

Egitarauaren barruan

"Kaixo, Basarri Zaharra!"



Bertso Eskolako ikasliak San Andresen egindako bazkarixan ostian.

Bertso saiua eta **"Kaixo, Basarri Zaharra!"** izeneko bertso antzerkixa eskeiniko dittue, Ibilixan Ibilixan bertso eskolako ikasliak martxuaren 31an.

Korrika datorrela eta, herrixan pre-parau dan egitarauaren barruan, txixixen eta erdikuen taldiak saiua eta nagusixen taldiak bertso antzerkixa

eskeiniko dittuzte Elizpian, eguerdiko 13:00ian. Attitta (Eneko B.), Kalekumia (Inaxio E.), Basarriko Neskia (Ikerne), Ama (Markel A.), Arratoia (Unai S.), Txarria (Iñaki A.), Karakola (Maite K.) eta Baria (Jone E.) izango dira protagonistak. Hona hemen 3. Agerraldiko 3 koplak honek, aurrekari modura:

Doinua: Hona bildots ezta.

Aitor	Aitona
Ikuilua ez dogu oso leku guaya ! Hau da zikinkeixia ze, kaka usaiña !	Ximor usain pixka bat nahiz izan onduan gauza sanuagorik ez dago munduan !

Idoia
Aitor, hartu galdara kontuak lagata ta usaiñarekin trankil, ohittuko zara-ta !

Eneko Beretxinaga 15 urte
Gaia: Korrika Soraluzen

Korrika dala eta bertso batzuk be idatzi dittue bereziki, hona hemen Eneko Beretxinagak idatzitakua.

Korrika iritsiko da, laister baten onera. Dan danok urten zaittie anttittika eittera. oztopoz beteta dago, aspaldian euskera. ea ba ! guztiok urten, traba horrek kentzera.

Ygarten Ygartendotela



ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era
Azken boladan ez zabiz oso fin maitasun kontutan, zeu zaran petsonaje fin eta leiala izanda... ulertezina ezta? Aldaketa garaixak datoz.
Pil-eguna: 20



TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era
Udaberrixa datorrela eta figura pixkat zaintzeko ordua heldu dala diñue ingurukuak, baina zure lagun kuttunari zure *figuria* gustatzen jako. *Pil-eguna: 13*



GEMINIS maiatzaren 22tik ekainaren 21era
Kirola egittia ondo dago baina neurrixan, zuri halata be, neurrixak hartzia ez jatzu gustatzen. *Pil-eguna: 25*




CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra
Osasun arazuak pasau ostian, dana ondo doiala uste badozu... zuzen zare dana okerrago juan leike eta. *Pil-eguna: 1*




LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra
Taurus moduko pertsonajekin argi ibili, ez pentsa zure bizitzako gizasemia-emakumia danik, inguruan ibiliko jatzu bat eta. *Pil-eguna: 28*



VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra
Bestiekin ondo kontpontzen zarala uste dozu... gixajua / koittaua. Ustia erdixa ustel, halata be saiatu motel, saiatu!
Pil-eguna: 17



LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra
Harreman estua izatia danekin ezinezkoa da, baina batekin, jakina posible dala. Orduan zeren zai zare? Esaixozu zure begiko horri, pare bat gauza eder.
Pil-eguna: 26



ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra
Azken aldi honetan, hainbat gertaera dirala eta, bizitza ez dala gogorra konturatzen hasitza zare. Ongi etorri mundu errealerla!
Pil-eguna: 9




SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era
Bizitzan gorabehera asko darella argi eduki ezkerre, ez litzake arazorik egongo. Gauzia, ulertzia da. *Pil-eguna: 20*



CAPRICORNIUS abenduaren 22tik urtar. 20ra
Korrika datorrela eta hor daukazu aukeria txipa aldatzeko. Korrika egitten sabel aldia uniformatuko dozu...
Pil-eguna: 22



ACUARIUS urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra
Ura biharrezkua dala bizitzeko, gauza jakina da, baina igeri egitteko ere balio dau. Ondo egongo litzake largo batzuk egittia egunero, ezta? Pizinia itxi dabe eta ezin igeri egin ordia.
Pil-eguna: 11



PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra
Zeure denboria ondo aprobeitxau, zeuria dala uste badozu be, benetan hola al da?
Pil-eguna: 12

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Apirileko agendia

MENDI TALDIAREN IRTEERAK

Apirilaren 8a (domekia)

Arkaitz Arantzazu Urbia

Apirilaren 29a (domekia)

GORBER ARABATIK EGUN OSORAKO

MUNDU BAT EUSKARARA

BILDU

12. KORRIKA

Martxuaren 31an (sapatuan)

10:30etan KUADRILEN ARTEKO OLINPIADAK

11:00etan Umiendako buruhaundixak

13:30etan TRIKI BERTSO POTEUA

15:00etan HERRI BAZKARIXA

(Orioko 5 bertsolari, trikitalarixak....)

18:00etan Soraluzeko dantza taldiaren saia (Plaza Barrixan)

18:30etan Umiendako buruhaundixak.

19:00etan KUADRILEN ARTEKO OLIN-

PIADEN FINALA

20:00etan PELOTA PARTIDUAK FRONTOIAN.

22:30etan KONTZERTUA GAZTETXIAN

Apirilaren 1ian (domekan)

11:00etan Umiendako Jolasak (Beti Prest, Ludoteka).

12:30etan Hankapaluak.

13:00etan Buruhaundixak.

13:00etan Ezoziko Ama Abesbatzaren saia.

13:30etan Trikitalarixak kalez kale.

17:30etan MUS, TUTE eta TRUK TXAPELKETIA. GAZTIAK ZARREN KONTRA.

21:30etan KONTZERTUA GAZTELUPIAN.

Apirilaren 2xan Korrika

17:30etan KORRIKA psauko da herritik.

Apirilaren 4an (eguztenian)

Soraluzeko Musika Eskolaren kontzertua.

Apirilaren 8xan (domekan)

Autobusa Baionara (han amaitzen da KORRIKA).

Zehaztu barik dare zein egunetan: Futbol partidua, hitzaldixa, 4 fil laburren emanaldixa, ipuin kontalarixa, diaporama emanaldixa, bertso eskoliaren antzerkixa.

Olinpiadetan eta herri bazkarixan izena emoteko orrixak, tabernetan jarriko dira. Animo eta emon izena jarrtakuan.

HITZALDI SORTAK

Soraluzeko EPAko zentruan

Apirilaren 5xan (eguztena)

Aseguroak konpensatzeko partzuergoa

Hizlaria: Iker Marcos, abokatua

Apirilaren 5xan (eguztena)

Elikaduraren garrantzia zenbait gaixotasuni aurre egiteko

ELIKERA dietetika eta elikadura

Lehiaketia



Nun dago argazkixan ikusi leiken iturri hau?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke.

**DEITU BIZKOR BIZKOR
943 75 13 04**

**Aurreko aleko irabazlia: Margarita Oruesagasti
Erantzuna: San Roke Ermittako kanpantorra.**

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Arauak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.



Estanpaciones **LAGA s.a.**

Industroaldeia
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702

42 postakutxa
20590 Soraluze

zorionak!!!



autobusak

Soraluze-Donostia:
Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:55, 8:45, 13:45, 14:45, 15:45, 19:45.

Zapatu lan egunetan: 7:45, 8:45, 13:45, 14:45, 19:45.

Igande eta jai egunetan: 10:15, 19:45

Donostia-Soraluze:
Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:15, 8:15, 12:00, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Zapatu lan egunetan: 8:15, 12:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Domeka eta jai egunetan: 17:30, 20:45.

Soraluze-Gasteiz:
Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 15:00, 17:00, 18:15, 19:00, 21:00.

Gasteiz-Soraluze:
Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Zapatu lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Domeka eta jai egunetan: 8:30, 9:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Bergara-Soraluze (urbanuak):
Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:10, 7:20, 8:20, 9:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20.

Zapatu lan egunetan: 8:20, 10:20, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20.

Domeka eta jai egunetan: 13:20, 15:20, 17:20, 19:20, 20:20.

Soraluze-Bergara (urbanuak):
Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 7:05, 7:45, 8:15, 9:00, 9:15, 10:15, 11:00, 11:15, 12:15, 12:45, 13:00, 13:15, 14:15, 15:15, 15:45, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 21:30.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 9:15, 11:00, 11:15, 12:45, 13:15, 15:00, 15:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:00, 19:15, 20:15, 20:45, 21:15, 21:30.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 14:15, 15:00, 16:15, 17:00, 18:15, 19:00, 20:45, 21:00, 21:15, 21:30.

Soraluze-Eibar (urbanuak):
Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:30, 7:40, 8:40, 9:40, 9:50, 10:40, 11:40, 12:40, 13:40, 13:50, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 17:50, 18:40, 19:40, 20:40, 21:50.

Zapatu lan egunetan: 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Domeka eta jai egunetan: 13:40, 15:40, 17:40, 19:40, 20:40.

Eibar-Soraluze (urbanuak):
Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:50, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatu lan egunetan: 9:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jai egunetan: 14:00, 16:00, 18:00, 20:45, 21:00.

Iruñea-Soraluze:
Astelehenetik zapatu lan egunetan: 10:30, 18:00. Domeka eta jai egunetan: 17:00, 20:30.

Soraluze-Iruñea:
Soraluzetik-Iruñea:
Astelehenetik zapatu lan egunetan: 7:45, 13:45. Domeka eta jai egunetan: 9:15, 18:15.




Esther Rubio Salguero

2.001-04-13 24urte

Zorionak neska!!!

Zure kuadrilaren partez muxu haundi bat eta ea urte honetan "kobertura" aurkitzen duzun (Buscando red, Buscando red....) Bisca Barça eta zu!



Guruzne Ariznabarreta

∞ urte 2.001 - 3 - 30

Zorionak eta urte askotarako!!!

Gure amama martxosiari bihotz-bihotzez Jubilaziñua laster dator baina ez urduritu. Pil Pileaneko erredakzioko danan partez.




Iker Tardio Gorostidi

17 urte 2.001 - 4 - 30

Zorionak eta muxu handi bat!!!

Zure familixa guztiak eta batez ere anaia Xabier, Gorka eta lehengusina Oihanak



Sabin Mendizabal

22 urte 2.001 - 4 - 11

Zorionak mutikote!!!

Jende txarra garala pentsatzen gare. Noiztik ez zara etorri, gutxienez bisitan? ez daukau hainbeste gose zu jateko eta etorri bildurrik bare. Pil Pileaneko danon partez.



Ixone Iñarra

2.001 - 3 - 20

Zorionak potxola!!!

Ondo pasau zure egunian eta goxoki asko jan. Etxekuak.



Aine eta Ainara Osoro

01 - 03 - 20 eta 01 - 04 - 07

Zorionak bikote eta urte askotarako !!!

Guraso eta etxekuen partez.

Oihana Mendizabal Gorostidi

21 urte 2.001 - 4 - 8

Zorionak eta muxu handi bat!!!

Zure guraso eta familixa guztiak.

jaixotakuak

Miren Blanco Mendizabal
Jon urdangarin Larreategi

hildakuak

Cecilio Arzelluz Epelde



telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkarteak	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apaiz Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu biharko ditzuzte bakarrik.

Animatu eta egin zaitte bazkide !



mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz), 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)

iletargixan gorabeherak

Ilberri		Ilbete
Apirila 23a		Apirila 8a
Ilgora		Ilbehera
Apirila 7a		Apirila 15a

æk

hemen korrika lagun

Holako karteltxuak jarrita,
Korrika Batzordiak eskerrak emon
nahi dotsez, laguntza emon daben
Soraluzeko denda eta lantegixeri.
Eskerrikasko benetan.

www.korrika.org

Euskal poletagileen txokoa




GRAZIAK ERRENKA

Eskerrik asko
eman behar dizut
neure Herria
neure Euskal
Herria
bihotzekoa,
neure ahalegin guztien
pagutan,
(hainbeste neke, izerdi,
buru-hauste,
buruko-min,
errierta,
desasosegu)
errendatu didazun
sari honen
preziatuagatik,
ipur-zuloa izorratzen didaten
hemorroide
polit hauengatik.

Gabriel Aresti
"Azken harria"



uek



mikel urdangarin
espilue



BIDE ERTZEAN
grisa



URREZTIETA KONEXION



MORAU



ARIMA BELTZA



fundiziyue



ENE BADA



gaztelupeko
hotsak

94 p.k.20590 SORALUZE / Tel.: 943 75 30 16 / Faxe: 943 75 01 39 / www.hotsak.com / e-posta: gaztelupeko@hotsak.com

Disko guzti hauek Gaztelupe tabernan dituzu salgai

Ezoziko Ama Abesbatza

*Plaentxiako txokuak
alaitzen ditzuzten txori kantariak*



**Animatu eta partehartu koruan
zeure ahotsa be entzun dein!!**

Musikaz goxatzeko...
Lagun-arte momentu jatorrazkuak izateko...
Beste herri batzuk ezagutzeko...
Koruan aukera paregabia daukazu.

